



BI ASTEZ KULTURAZ BLAI BERASTEGIN

Etzi ekingo diote Berastegin Kultur Asteari; hitzaldiak, antzerkiak, bertsoak eta azoka izango dira, besteak beste » 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea 2009-11-03

VII.URTEA 1.817.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Letoniako Rida Katedraleko Haur Abesbatzeko kideak sariekin, pozik, herenegun. I. LAHIDALGA

SARI NAGUSIA LETONIAKO HAURRENTZAT IZAN DA

TOLOSA Letoniako Rida Katedraleko Haur Abesbatzak ordezkatu du Tolosako Lehiaketa Europako Sari Nagusian; puntuazio handiena Herberehetako Whisful Singing-ek lortu arren, arautegiko oinarriak ez betetzeagatik letoniarrentzat izan da aurtengo Sari Nagusia **4-5**

Emakume Abertzaleen Topaketak aurkeztuko dituzte gurean

GIZARTEA Tolosan egingo dira topaketa feministak abenduaren 12an **7**



I. GARCIA

ZIGOR LEUNDA BERTSOLARI
TXAPELKETAKO EPAILEA

«Epaimahaian
eseri zaudela
gutxi gozaten
da saioez»

VILLABONA Asteburu
honetan hasiko da epaile
bezala txapelketan **6**



HITZAK 2 sarrera pare ditu



sarrerak



berabera
EHAKUMIZKO ESKUBALOI TALDEA

AKABA BERA BERA PARC SAGUNTO

Eskubalo partida

Bihar • 18:00etan • Donostiako Bidebieta kiroldegian

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira
deiak arratsaldeko 15:00ak arte jasoko ditugu

TXOKA hitza

Peio Basualdoren hitzaldiarekin hasiko dute Kultur Astea

Berastegi » Larunbatean herriko antzerki taldeak hiru lan eskainiko ditu: festen inguruko bi eta 'Neska-Gizon Gizon-Neska'.

ERREDAKZIOA

Ostegun honetan hasiko da Berastegiko Kultur Astea Peio Basualdok eskainiko duen *Amazoniako herririka ezkatuak* izeneko hitzaldiarekin. Basualdo irakaslea da lanbidez, baina azken hamar bat urteetan Latinoameriketako herri indigenak aztertzen aritu da.

Basualdorena, hala ere, ez da izango hitzaldi bakarra, izan ere hondakinen birziklatzeari edota esnearen zein esnekien kontsumoaren inguruko iritziak ere entzun ahal izango dira.

Kultur Astea bi asteburuetan egingo dute, hau da, ostegun honetatik igandera bitarte, lehenik, eta datorren ostegunetik, hilak 12, hilaren 15era bitarte. Azken egunean Azoka Eguna ere izango dute herriari.

Argazki Rallyko argazkiak eta mendiko GPS ikastaroa

Kultur Asteak irauten duen bitartean Argazki Rallyan ateratako argazki guztiak ikusteko aukera ere eskainiko dute aparkaleku azpiko aretoan eta hilak 16, 18, 20 eta 21ean Mendiko GPS ikastaroa ere izango da KZgunean. Ikastaroak 20 euro balio du eta izena hilaren 10a baino lehen eman behar da. Aste egunetan zati teorikoa landuko dute (21:00-22:30) eta larunbatean, aldiz, zati praktikoa garatuko dute (09:00-12:00). Taldean gehienez



Ion Aranburuk gaztak dastatzeko ikastaroa eskaini zuen pasa den urteko Kultur Astearen baitan. N. URBIZU

15 pertsonen hartu ahal dute parte, eta ondorioz, gehiagok ematen badu izena zozketa egingo dute. Informazio gehiagorako 635 700 027 (Miel) telefono zenbakira deitzeko eskatu dute.

Antzerkia

Aurtengo Kultur Astearen baitan herriko antzerki taldearen hiru lan ikusteko aukera ere izango da. Taldeak emanaldi bakarra eskaini ohi du urterto eta normalean herriko jaietan edota gazte festetan egiten badute ere, aurtengoan lehen aldiz Kultur Astearen baitan eskainiko dute. Taldeko Olatz Etxeberriak argitu duenez, orain bost urte hasi ziren biltzen. «Herriko jendea

gara eta adin desberdinetakoak. Lehen urtetik hona, hala ere, partaideen kopurua jaitsi egin da, eta orain bost bakarrik gara», argitu du. Taldekiak Xabi Barriola, Garbiñe Ezkerra, Amaia Azkue, Jone Gorostizu eta aipatu Olatz Etxeberria dira. «Mutil bakarra dago eta neska mutilen papera egiten aritu gara, ea mutilen bat animatzen den», eskatu du.

Larunbatean 21:30etik aurrera hiru lan eskainiko dituzte: ordu erdi inguru irauten duen *Neska-Gizon Gizon-Neska* izeneko eta herriko jaien inguruko bi *sketch*. «Azken bi hilabeteetan aritu gara lanak prestatzen, testuak ere guk asmatzen ditugu. *Neska-Gizon Gi-*

zon-Neska-n ligatzeko modu desberdinak islatuko ditugu. Mutil bakarra eta hiru neska daude eta ligatzen saiatuko dira», argitu du. Entsegu gehiegi ere ez dituzte egiten, hala ere, «azken momenturako uzten ditugu gauza asko, eta egia esan, jendaurreko saioa izaten da beti ondoen ateratzen dena. Herriar asko gure lana ikusteko zain ere izaten ditugu».

Arroz-esne lehiaketa

Larunbatean, antzerkia baino lehen, dena den, sagardoa egingo dute eta baita afari-merienda ere. 17:00etan I. Arroz-esne Lehiaketa ere egingo dute aparkaleku azpiko lokalean. Izena emateko azken eguna ostirala, hilak 6, izango da, eta udaletxean bertan edo sebas@berastegi.com helbidearen bidez egin daiteke.

Parte-hartzaileek herrikoak izan behar dute, etxetik eraman behar dute arroz-esnea eta nahi dituzten osagaiak erabilia, beti ere hiru litro esne erabiliz.

Partaide bakoitzari 20 euro emango dizkiete osagaien gastuetarako eta saria antzerkiaren aurretik banatuko dute.

» EGITARUA

Hilak 5, osteguna

■ **21:00.** Eskolako ganbaran *Amazoniako herririka ezkatuak* izeneko hitzaldia eskainiko du Peio Basualdok.

Hilak 6, ostirala

■ **16:30.** Altxor bila (euria egiten badu DVD emanaldia eskainiko dute eta altxor bila hilaren 13an ordu berean egingo litzateke).
■ **21:00.** Goenkaleko aktoreak kontu kontari eskolako ganbaran.

Hilak 7, larunbata

■ **17:00.** Sagardo egitea frontoian.
■ **17:00.** Aparkaleku azpiko lokalean Arroz-esne Txapelketa.
■ **18:00.** Gaztain erretzea. Ondoren, afari-merienda banatuko dute: salda, txorizoa eta haragi egosia, gaztain erreak, arroz-esnea eta arratsaldean egindako sagardoa (muztioa) banatuko dituzte.
■ **21:30.** Antzerki emanaldia Be-

rastegiko antzerki taldearen eskutik.

Hilak 8, igandea

■ **12:00.** Gaztainondo elkartean ardo dastaketa Prexen Urkizuren eskutik.
■ **16:30.** Frontoian Xurdinen emanaldia haurrentzat, Kutxaren eskutik.
■ **17:30.** Euskaraokoa
■ **18:30.** Txokolatada.

Hilak 12, osteguna

■ **17:00.** Eskolako jangelan Idoia Sanchezen ipuinak.
■ **21:00.** Eskolako ganbaran *Hondakinen birziklaketa eta traste zahar biketa Berastegin* izeneko hitzaldia eskainiko du Xabier Lekuonak.

Hilak 13, ostirala

■ **16:30.** Eskolako ganbaran DVD emanaldia haurrentzat.
■ **22:00.** Eskolako gimnasioan Bertso-Trama.

Hilak 14, larunbata

■ **12:00.** *Esne eta kontsumorako eskokie buruz argibide batzuk* hitzaldia Ion Aranbururen eskutik.
■ **15:00.** Basurde Elkartean Mus Txapelketa azkarra.
■ **16:00.** Gazteen I. Duatloia. Ondoren, merienda banatuko dute.
■ **18:00.** Elizan *Euskal folkloreakin mundurantz* Oñatik ganbara abesbatza, Kutxaren eskutik.
■ **22:30.** Eskolako gimnasioan euskal musika emanaldia Ansa ahizpen eskutik.

Hilak 15, igandea, XI. Azoka Eguna

■ **Goizean zehar.** Herriko produktuak eskuragai: barazkiak, gaztak, eztia, eskulanak... Gazta Txapelketa, II. Ardi-ahari Txapelketa eta III. Animalia Erakusketa ere egingo dituzte. Ekintza guztietako sariak ere banatuko dituzte.
■ **18:00.** Talo jatea, goizeko gaztak dastatuaz eta ardo zein sagardoa-rekin bustiaz.

Laburrak

Etxalargo usotegiak ezagutzeko aukera

IBARRA » Ibarako Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Mendi Taldeak beste mendi irteera bat antolatu dute igande honetarako, hilak 8. Oraingoan Etxalargo usotegiak ezagutzera joango dira, besteak beste. Ibilaldia bost ordu ingurukoa da, nahiz eta, umeekin joaten direnek bi ordu eta erdiko ibilaldia ere egin dezaketen. Bihar da izena emateko azken eguna eta horretarako 691 563 204 telefono zenbakira deitu behar da.

Informatika ikastaroa KZgunean


BERASTEGI » Euskadiko Nekazari Federazioak, EHNELURek, informatika ikastaroa antolatu du Berastegiko KZgunean. Printzipioz ikastaroa hil honetan hasi eta abenduan amaituko da eta edozeinek eman dezake izena, oinarriko maila eskainiko baitute. Ikastaroa doakoa da, arratsaldeetan izango da eta Berastegiko Gizarte Zerbitzuetan eman daiteke izena, 943 68 36 20 telefono zenbakira deituta.

Erleen inguruko hitzaldia, gaur 21:30ean

OREXA » *Erleak, gure lagunak* hitzaldia eskainiko du gaur 21:30etik aurrera Martxel Aizpuruak Oreako Kultur Hamabostaldiaaren baitan. Ostiralean, aldiz, Lain taldearen kontzertua entzun ahal izango da 22:30ean eta larunbatean, Kultur Hamabostaldiko azken egunean, herri afariaren ostean Gari eta Iñakiren taldearen eta DJ Bullen musika izango da nagusi.

Babarrunaren eta txerriaren festa

IBARRA » Ibarako Hauspibarra Kultur Elkartek babarrunaren eta txerriaren festa antolatu du igandeko herriko plazan. 14:30ean elkarteko kideek prestatutako babarrun janaz gozatu ahal izango da eta txartelak Zubiaurre, Sendi-Ekintza eta Atari tabernetan erosi behar dira (15 euro helduentzako eta 6 haurrentzako). Hauspibarrak festan parte hartzera gonbidatzen ditu herriar guztiak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E **Elkarrizketa****ZIGOR LEUNDA** ▶ Bertsolari Txapelketa Nagusiko epailea

Villabona » Taldeka jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan hasi zuen bere epaile ibilbidea Zigor Leundak; zeregin horrek bertsolaritari «oso lotua egotea» ahalbidetzen dio.

IMANOL GARCIA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko epailea da Zigor Leunda (Villabona, 1978). Oraindik ez du epaile lana egin Txapelketako saio batean, baina asteburu honetan hasiko diren zazpi finalurrekoetan eta finalean ariko da.

Nolatan sartu zinen epaile lanean?

Nik bertsolarako afizioa beti izan dut, txikitatik. 14 urterekin hasi ginen Villabonako lau lagun Andoaingo bertso eskolan eta 18 urte arte ibili ginen. Gero, orain 10 bat urte, Gipuzkoako Txapelketa taldeka jokatu zen. Erriobeia bailaran talde bat osatu genuen, Irazu, Amaia Agirre, Txomin Garmendia eta Aitor Esnaola bertsolari bezala. Talde bakoitzak epaile bat eta gai-jartzaile bat ematen zituen. Niri esan zidaten eta animatu nintzen. Gero, hurrengo Gipuzkoako Txapelketa egin aurretik, epaile gutxi zegoela-eta, talde horietan ibili ginen jendeari deitu ziguten, ikastaro batzuk egin genituen eta batzuk animatu ginen pausoa ematera.

Zer prestaketa egiten duzue epaileek?

Aurten urtarrilean hasi ginen bil-tzen hileroko maiztasunarekin eta azkeneko hilabeteetan gehiago elkartu gara. Bertsoak epaitzeko irizpide batzuk badaude eta lehen-dabizi haiek berrikusi eta pixka bat orraztu eta eguneratu genituen. Gero, batez ere saioak entzun ditugu. Epaile bakoitzak puntuatu, eta puntuazio hori azaldu eta eztabaidatu, arrazoitu egin dugu.

Nola izaten da puntuazioa?

Gurea ere, bertsolariena bezala, bat bateko lana da. Prestaketa bat egiten dugu, irizpide batzuk daude eta horietan oinarrituz, ahalik eta informazio gehiena zurruputzen saiatzen gara eta azkenean, bat batean, bost-hamar segundotan, nota bat jarri behar diozu bertso horri. Baleko bertsoa esaten dugu hamarretik 5,5 puntuko bertsoa dela gutxi gorabehera eta gero egin dituen merituaren arabera, nota hori gora joaten da eta, berdín, egin dituen akatsen arabera behera ere bai. Merituak bakarrik izan baditu, 7 edo 7,5 izan daiteke, baina eraberean, meritu eta akatsak izan baditu, agian gelditzen zaizu 5 edo 5,5 edo 6an.

Zenbat bertso puntuatzen dira gutzira?

Gutzira hamabost bertso dira puntuagarriak bertsolari bakoitzeko. Zazpi epaile izaten dira eta bako-



L. GARCIA

«Epaimahaiian eserita zaudela gutxi gozatzen da, ardura handia da»

tzak ematen dituen puntuak zenbatzen dira. Ariketa bat bukatzen den aldiro bertsoa puntuatzen dugu. Bi idazkari izaten dira mahaiian, batek jasotzen ditu puntuazioak eta besteak excel-orri batean sartzen dira. Puntu denak sartzten dira. Gehienez, bertsolari batek saio batean 1.050 puntu lor ditzake. Askok komentatzen da oso ezberdintasun txikiak izaten direla bertsolari batetik bestera. Baina gehienek maila berdintsua dute.

Zer kentzen du puntu gehien?

Betidanik sinistu izan da eta pentsamendu hau oso zabaldua dago, potoa dela gehien zigortzen dena. Eta bai zigortzen dela, baina neurri berean, eta askotan gehiago, zigortzen da hizkuntza akatsak, bertsoak aldegitia, hau da, bukaera pentsatzen duzu eta joan egin zaizu eta zerbaít botatzea errimatuz. Edo askotan nahastu egin zara, ez zaizu beste zerbaít etortzen eta bertsoak eskatzen du pota egitea, eta beste

errima bat sartzea pota ez egiteagatik. Askotan horiek pota bat baino itusisago gelditzen dira.

Badakizue zer gai jarri behar zaizkien bertsolariei? Izaten duzue harremanik gai-jartzaileekin?

Ez, ez dugu. Gai-jartzaileen taldea oso itxia da eta hala izan behar du. **Bapatean jakiten dituzue zuek ere gaiak, beraz.**

Bai, hala da. Bakarrrik kartzelako ariketan, lehenengobertsolariekin batera jakiten dugu zein den gaia eta hortik aurrera badakigu. Guk entzuleek bezala ezagutzen ditugu gaiak.

Bat batean ematen duzue puntuazioa, bost-hamar segundotan. Ez du erraza izan behar.

Eta puntukako ariketan, adibidez, hiru segundotan. Gai-jartzaileak puntuatzen du. Puntua jarri eta bertsolaria hiru segundo baino lehen erantzuten hasten da. Bertsolariak bukatzen duenean, gai-jartzailea entzuleen txaloen zain ge-

ratzen da eta hasten da berriro. Guretzat ariketa zailenak dira oso erritmo azkarra daramatelako.

Beraz, ondo entrenatuta egon behar zarete.

Bai, bai. Gainera ofizioetan gaia entzuten duzu eta ariketa guztirako badakizu zein den. Baina puntuan, puntu bakoitza gai bat da, beraz, horrek ere zailtzen du.

Gertatu zaizu, epaile gisa, pentsatzea zure puntuazioaren arabera bertsolarien sailkapena nolakoa izan beharko lukeen eta gero azken emaitza horrela ez gertatzea?

Ez da askotan gertatzen, baina gertatu da. Batez ere badaude bertsolari batzuk bere kantaera oso berezia dela, hizkuntza oso era jakin batean erabiltzen dutenak, bere herrian hitz egiten den hizkera erabiltzen dutenak. Horiek epaile batzuei errez sartzen zaizkie eta beste batzuei kostatzen zaie. Ez da ohikoa, batzutan gertatzen da

eta batez ere bertsolari jakin batzuekin. Niri ere tarteka gertatu zait, saioa bukatu eta pentsatzea bertsolari jakin batek irabaziko duela. Eta gero nire puntuazioan ez ateratzea aurrena.

Epaile bezala gozatzen duzu bertso saio batean?

Gutxi. Ardura handia da. Askok jokatzen dute bertsolariek. Euskal Herri mailakoa da, jende asko dago bertsolariei begira... Aurreneko fase honetan bertso aukeraketa egiten aritu naiz, webgunerako, irratirako, gero CDa eta liburua editatzeko eta askoz ere gehiago gozatu dut. Lasai-lasai joan, bertsoak entzun, ia-ia entzule bat bezala. Epaimahaiian eserita zaudenean gutxi gozatzen da. Nerbioak izaten dira eta batez ere ardura handia daukazula sentitzen duzu. **Bertso saio batera joaterakoan, txapelketatik kanpo, bertsolariak puntuatzeko joera izaten al duzu?**

Ez, saio batera joaten naizenean gozatzeratzen joaten naiz. Esan beha-

Finaleko lehia oso borrokatua izango da; bertsozaleak animatzen ditut Barakaldora joatera

rra dago txapelketan zazpi epaimahaikoetaz gain beste epaile asko izaten direla. Jende asko joaten da bere koadernoarekin eta bere notak jartzen ditu.

Eta batenbat joaten zaizue esanez ez duzuela bertsolari bat ondo puntuatu?

Horrelako kontuak izaten dira. Adibidez, batek esan zidan lehen-goan, joaten dela bere ezagun bat koadernoarekin eta bi boligraforekin. Boligrafo batekin jartzen ditu bere notak eta bestearekin bere us-tez epaimahaikoak jarriko dioten nota.

Puntuatu Otik 10era epaile bezala aritzearen zailtasuna.

10etik oso gertu. Ardura handikoa lana da, inork ez duena egin nahi izaten. Esker txarrekoa.

Zer da bertsolaritza zuretzako?

Niretzako bertsolaritza afizioa da. Beti gustatu izan zait asko eta gero eta gehiago, egia esan. Epaimahai-kolan horretan aritzea da bertsolaritari oso lotua egotea ahalbidertzen didan lan bat. Bestela ere seguru bertso saioetara joango nintzela, jarraituko nuela, baina epaimahaiko izate horrek behar-tzen nau jarraipen handiagora egitera, informatuago egotera, gehi-go mugitzera. Gero lagunartean eta bertso dexente abestu ditugu, afarietan eta.

Oraingoan norbaitek kenduko dio Egañari txapela?

Ez dakit. Bolo-bolo dabil bertsozaleen artean baiezkoa. Niez naiz ausartzen pronostikoa ematera, baina nire ustez lehia oso borrokatua izango da. Nik animatuko nuke bertsozalea Barakaldora joatera abenduaren 13an.

Emakume Abertzaleen IV. Topaketak aurkeztuko dituzte eskualdeetan

Gizartea » Tolosan egingo dira topaketa feministak abenduaren 12an. Aurrez hainbat herritan aurkeztuko dituzte.

ASIER IMAZ

Tolosan Emakume Abertzaleen IV. Topaketa Feministak egingo dituzte abenduaren 12an, *Biluztuz Jantzi* lelopean. Egun mugimendu feministan orokortua den eztabaida bati heldu nahi diote bertan, identitateen gaiari, alegia.

Abenduko topaketak lehenik emakumeen artean aurkeztuko dituzte, horretarako Tolosaldeko

eta Leitzaldeko Bilgune Feministak batzarrak egingo ditu.

Lau urteren ondoren

Euskal Herriko Bilgune Feministak burutu zituen azken topaketak testuinguru politiko «berezi» batean egin ziren: «2005. urtean Euskal Herria bake prozesu baten atarian zegoen eta prozesu horretan emakumeon parte hartzearen inguruan hitz egitea ezinbestekoa iruditu zitzaigun».

Emakume Abertzaleen IV. Topaketa Feministak beharrezkotzat jo dituzte antolatzaileek: «Gaur egun emakumeok Euskal Herrian ditugun arazo eta erronkak gure ikuspegitik eztabaida-

tzea, ezinbestekoa iruditzen zaitzagu».

Lanketa horretan jardungo dira Tolosan, izan ere, mugimendu feministaren «helburu nagusia» jendartearen eraldaketa izanik, «ezinbestean sistema patriarkala-

» EGITARUA

Topaketen aurkezpenak

- **Tolosan.** Bihar, 19:30ean Kultur Etxean.
- **Alegian.** Hilaren 11n, 19:30ean udaletxean.
- **Leitzan.** Hilaren 14ean.
- **Villabonan.** Hilaren 18an, 19:30ean Mintzolan.

ren tresnen gaineko azterketa gaurkotu eta eragile feminista gisa ditugun erronkak identifikatu behar ditugu: borroka feminista eraginkor bat garatu nahi dugu. Horretarako, identitateen eztabaidari heldu nahi diogu».

Zer da identitateen gaia?

Mundu mailako mugimendu feministek 70. hamarkadan jarri zuten marxian identitateen inguruko eztabaida. Garai hartan, emakumeen identitatea «opresio hirukoitz» baten baitan kokatu zuten: sexua edo generoa, klasea eta arraza edo etnia.

Euskal Herrian, aldiz, mugimendu feministaren barnean

90eko hamarkadan hasi zen egonkortzen emakumeen identitateen inguruko afera. Orduan, praktika feminista nagusiki identitate sexualetan oinarritzen bazen ere, egun lehen aipaturiko hiru ardatzak hartzen dira kontutan.

Emakume Abertzaleen IV. Topaketa Feministetan, hiru giltzari horiek eta mugimendu feministaren helburu nagusia kontuan hartuta, ondorengo galderei erantzuten saiatuko dira: «Euskal Herriko eraldaketa gauzatzeko zein praktika feminista behar dugu? Praktika hori aurrera eramateko, zein subjektu feminista behar ditugu? Subjektu horiek, zein identitate hautsi eta sortu behar dituzte?».

Honen inguruan eztabaidatu, formatu eta erabakiak hartu nahi dituzte abenduaren 12an. Antolatzaileek ahalik eta ekarpen gehien jaso eta topaketak ahalik eta aberatsen garatu daitezken, emakume gutzietan egin diete dei.

Teruelen. Teruel? Bai, Teruel existitzen da



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza
Futbol jokalaria

ñorei opa eztioten uda pasa ondoren aurtengoan Teruelen naiz, 3. mailan. Askotxotan pasatu izan naiz *Teruel* kartelak dauden bidetatik, beño sekulena aiatu gabea bitzen egie esan. Gañea, aitez bade, Teruelgo ñor ez izautzea gauze kuriosoa zen netzat. Ba oaingoan konprobatu dot Teruel existitzen dela, noski baietz! jeje.

Aipatu doten bezela, tentsioz betetako uda suertatu zat, oso gorra ta sufrittue. Zoritxarrez futbolan arpegi gordiñe probatu behar izan dut. Zerbatte ona bilatzekotan, bizitako esperientzikin asko hezi naizela esanen nuke. Iruittu

hoixe dot behintzat. Oso luzea eta korapilatsue da dena, beño saiatuko naiz laburpen ulergarri bat itten.

Beno, aurreko denboraldie nahiko «txukun» bukatu nun Eibarren kontrako partidu guzie jokatuz, eta aurtengo entrenamenduri ilusioz ekin nioan, maila onen gañea. Ba eun batetik bestea, inongo esplikazio gabe, ni eta beste hiru taldekide ekipotik apartatu giñeudean prestatzaile bat jarriz guri entrenatzeko. Era hontan, nik Nastikekin siñatue neuken kontratua barkatzea eta beste talde batea alde itela forzatu nahi zuen, akordio batea aiatzen saiatu ordez. Klubeko arduradun gehienan jokaera nazkagarrie izandu zen, jende nahiko ustela dau, manipulatzaila (holako leku gehienetan eonen dien bezela, oker haundik gabe).

Gise hontan ibilli nitzen 45 euneez, ordutegi anormaletan (goizeko zazpik, eguerdiko hamabik...) eta kondizio gorretan entrenatuz; bero jasangaitze, material eta instalazio egoki falta... Desesperazio

eta desilusio latza sortu zizkien. Zeñen luze itten zitzaizkien eunek. Zorionez, azkenen akordio ekonomiko batea aiatzea lortu nun eta 2. B mailara joateko epea ixie zeonez, hirugarren mailara etorri naiz, momentu hartan neuken aukera onena zela ikusiz.

Bi eskañera jetsittot, beño beno, halaxe suertatu da ta ezto bueltik. Udan zehar 2. B mailako lau taldeen eskeintzak euki nittun, beño kondizio eskasak zien egie esan. Behar bada 18-20 urte izan banittu ba onartuko nun baten bat, beño futbolan oaingo egoera eztau arriskatzeko. Hobe izaten omen da pau-soak segurotik ematzea eta zentzu hontan talde hau bai kirol eta bai ekonomi aldetik saneatue dau leku gutxitako bat da.

Teruelea etorri naizenetik minutu guzik jokatuttot eta alderdi hortatik nahiko gustoa nau, nahiz eta oaindik ez naun nere maila onenen. Gañea lider eottetik bosgarren posture pasa ganez berriz bide zuzenen sartzeko premi latzak in aurkitzen ga.

Oinatz Bengoetxea txapelketatik kanpo

Leitza » Lau t'erdiko final laurdenetan galdu zuen partida Bengoetxea VI.ak Juan Martinez Irujoren aurka Eibarren.


A. IMAZ

Astelena pilotalekuko hezetasunak hezetasun 22-19 irabazi zion Martinez Irujok Oinatz Bengoetxeari herenegun. Ondorioz, leitzarrak agur esan zion aurtengo Lau t'erdiko txapelketari, berritoren ligaxkaren atean.

Partida polita jokatu zuten bi txapelkunek, «boladaka», batzutan Irujo aurretik eta bestetan Bengoetxea VI.a. Azkenean, ordea, Iberokoa nagusitu zen hiru tantoko errentaz.

Gonzalez aurrera Tolosan

Final laurdenetako azken partida atzo jokatu zen Beotibarren. Jende ugariaren aurrean Gonzalez 17-10 jarri zen irabazten, baina orduan Berasaluze VIII.ak orkatilla bihurritu zuen. Partida bertan behera gelditu zen. Lapurtarrak jarraitzen du aurrera.



Pablo Berasaluze ezin partida amaitu Beotibarren. REBEKA CALVO

H Hilberriak

JOXE MARI ETXEBESTE AMUNDARAIN



Agurrik ez, gero arte baizik. Beti gure artean egongo zara, nahiz eta aparte.



IBARRA
2009ko azaroaren 3an

Arrastaka koadrilako zure lagunak

JOXE MARI ETXEBESTE AMUNDARAIN

Jauna



Duintasunez azkenerarte borrokatu duzun arren naturak bere ditun legerik ezin izan duzu eten beti goxo, beti eskuazabal,

gu guztiontzat gozamen muxu haundi bat denon partetik jakin zazula bederen gure barnean izango zera maite dena ez da ahazten.



IBARRA
2009ko azaroaren 3a

Illobak: Iñigo eta Mirian, Mikel; Imanol eta Izaskun, Aitziber eta Iñaki, Arkaitz eta June; Ainhoa eta Iñigo, Sheila eta Ibai; Joseba eta Goretti; Ane, Gaizka; Ariz, Olatz; Iloba bikikiak: Garoa, Arizta, Amets; Unax eta Adur.



18°
11°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Orexa.** Kultur Hamabostaldia: Martxel Aizpuruaren *Erleak, gure lagunak* hitzaldia 21:30ean.

Mendi irteerak

■ **Villabona.** Igandean Villabona-ko eskalatzaileren Topaketa Peñar-tean (Carrascal), Aizkardi mendi elkar-teak antolatuta. Izen-ematea, elkar-tean (649 717182).

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatu elkar-teak Santo Domingo de la Calzadara (Errioxa) irteera antolatuta du azaroaren 5erako 14 eurotan. Izen-ematea, elkar-tean.

Deialdiak

■ **Larraul.** Herriko irudiez osatutako egutegi bat argitaratzeko argazkiak bildu nahi dituzte. Argazkiak, ahal dela edozein formatu digitaletan, Aitor Atxegari eman behar zaizkio. Artxiboren izenean proposatzen den hilabetearen izena agertu behar da, esate baterako F:/iraila.jpg. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, lau argazki entregatzeko aukera dauka eta ez da jarri ez adin mugarik ezta saririk ere.

■ **Tolosa.** Engomadora Moderna enpresako langile ohiek bazkaria egingo dute azaroaren 7an Fronton jatetxean. Izen-ematea, 943 674669 (Izaskun) eta 943 671943 (Justi) telefono zenbakietan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274

A Agurrak



Urte askoan!

Izeia (Zizurkil). Zorionak Izeia etxe-koen partetik! Muxu handi bat zure lehenengo urtebetetzeari!!



Loreak Santu Guztien Egunean

ZIGARTEA ■ Herenegun Santu Guztien Eguna ospatu zen Hego Euskal Herrian. Hori dela eta, jende ugari hurbildu zen eskualdeko hilerrietara euren familiar-eko eta ahaideak gogoratzeko. Ahots batzuk ere altxa

dira egun honen «inposaketaren» aurka, baita honen inguruan sortzen den negozioren aurka. Eztabaidak eztabaida jende askok baliatzen du egun hau hilerriak apaintzeko. IDOIALAHIDALGA

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Klipak. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** 41. Abesbatza Lehiaketa (klausura ekitaldia). **12:30.** Ur eta Lur. **13:00.** Alex eta Alexis. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** 41. Abesbatza Lehiaketa (klausura ekitaldia). **16:30.** Ur eta Lur. **17:00.** Alex eta Alexis. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Errugbya (Ampo Ordizia). **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Saio berezia: bisita gidatua. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduro errepikatzen da).

» IRRATIA

Txolarre irratiak

Tolosaldeko Ahotsa:

-11:00-12:00. Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albisteak, oharrak, agenda...)
-12:00-13:00. Magazina.
-13:00-13:30. Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Eguerdiko albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.
17:00-18:00. Musika nobedadeak Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena):
-18:00-19:00. Magazina
-19:00-20:00. Albistegia
20:00-20:30. Iluntzeko albistegia, Info 7.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

200 ERREZETA
PILAKARRAK
OHARRAK
ERREZETAK

berriaren
harpidedun eta irakurleek
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoia** eta utzi zure kioskoan **azaroaren 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea: **FAGOR**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

mantangori rekin

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOKO **26 €** EUSKARIA EGITEKO **943 30 43 46**, harpidetsa@berria.info edo www.berria.info

Berria: **EUSKO JAURRIARITZA** GORRIKIN BIRATZIO

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**